

Lehen hortzen osasuna zaintzen

0 ETA 6 URTE BITARTEKO HORTZEN ZAINKETA

Hortzen eta ahoaren zaintza jaio ondoren hasten da **ohitura osasungarriak** ikasiz, hala nola azukrerik gabeko elikadura egokia, eta eskuilatze egokia, adin bakoitzerako adierazitako fluor-pastaren kopuru aproposa kontuan hartuta.

0 eta 6 urte bitarteko lehen etapan, lehen hortzak ateratzen direnean, higiena funtsezkoa da txantxarra bezalako arazoak agertzea saihesteko. **Detekzio goiztiarrari** esker, adin horietan txantxarren hasierako lesioak geldiarazi daitezke bitarteko erraz eta egokiekin, enpasteak jarri beharra saihestuz eta denbora irabaziz behin betiko hortzak hasi arte.



Testuinguru horretan, Osakidetza aho-hortzen prebentzioaren eskaintza zabaldu du, sei urtera arteko haurrak odontologiako kontsulta publikoetara joan ahal izan daitezen.



Zer hartzen du barne?

- Txantxarraren arriskua aldizka ebaluatzea.
- Hortz-osasunari buruzko gomendioak: dieta, eskuilatzea, fluorra...
- Garbiketa eta tratamenduak, etorkizunean enpasteen beharra saihesteko edo atzeratzeko.
- Hortzen gainazalean fluor-bernizak aplikatzea, lesioak geldiarazteko.
- Hortzetako hobiak eta pitzadurak zigilatzea.
- Obturazioak behin betiko lehen hortzetan (6 urte inguru).
- Hortz-haginen erauzketa.
- Larrialdiak, Lehen Mailako Arretako pediatria-taldeak balorazioa egin ondoren.



Zer ez da sartzen?


- Ortodontzia.
- Enpasteak eta endodontzia esne-hortzetan.

Nola jo zerbitzu honetara?

Zita eska dezakezu **ahohortzen osasun-unitatearekin** edo zure erreferentziako pediatriaren bidez. Asistentzia hori Osakidetzaren esparruan ematen da, eta, beraz, odontologiako kontsulta dagokion osasun-zentroaren arabera esleituko da.

Zer gertatzen da 7 urtetik aurrera?

Zazpi urte betetzen diren urteko urtarrilaren 1etik aurrera, Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) bidez egiten dira hortz-azterketak. PADI behin betiko hortzen osasunari eustera bideratuta dago. Haurrei dei egiten zaie programari berariaz atxikitako kontsulta publiko eta hitzartuetara joan daitezen.



Haurren hortzak zaintzearen aldeak adinaren arabera

	0-6 urte	PADI 7-15 urte
Asistentziaren iraupena	Jaiotzatik denetik 6 urte bete arte.	7 urte betetzen diren urteko urtarrilaren 1etik 15 urte betetzen diren urteko abenduaren 31ra arte.
Hortz mota	Esne-hortzak.	Behin betikoak.
Non egiten dira kontsultak?	Osakidetzan, erreferentziako osasun-zentroaren arabera.	Osakidetzan, eta aukera libreko klinika itunduak.
Nola jarri harremanetan	⇒ Zita eskatu zure osasun-zentroan. ⇒ Pediatriako taldearen bidez.	PADIren gutun bat jaso ondoren, zita eskatu Osakidetzako osasun-zentro bateko administrazio-eremuan edo zuk aukeratutako zentro itunduan: zentroen zerrenda Osakidetza-Osasun Eskolaren webgunean.
Zer hartzen du barne?	<ul style="list-style-type: none"> Txantxar-arriskua aldizka ebaluatzea. Hortz-osasuneko jarraibideak: dieta, higiena. Zigilatzaileak eta fluor-bernizak. Enpasteak eta endodontziak hortz iraunkorretan (6 urte inguru). Gutxieneko esku-hartzeko tratamenduak. Larrialdiak eta hortzak erauzteak. 	<ul style="list-style-type: none"> Txantxar-arriskua aldizka ebaluatzea. Aho-hortzen osasunari buruzko jarraibideak: dieta, higiena. Zigilatzaileak eta fluor-bernizak. Enpasteak eta endodontziak. Traumatismoak eta malformazioak. Larrialdiak eta hortzak erauzteak.
Zer ez du barne hartzen?	<ul style="list-style-type: none"> Ortodontziak. Enpasteak eta endodontziak esne-hortzetan. 	<ul style="list-style-type: none"> Ortodontziak. Esne-hortzetako enpasteak.